AZALPENAK

EGIN DABE

LAUAXETA

Elexaren aurka, gogor ekingo ebela, españako ezkertarrak, atziñatik genkigun. Agi-araudiko ogeta laugarren atalak esi dauz lekaide eta lekaime gustijak. Nundik ...ek ertaukoe. Ganera Josulaunak kanpora jaurti dabez.

España'n ezin bixi ixango dira josulaunak. Ortik asi ixan dira beti uzkurtza ...ako gudaketak. France aldian be orixe gertau zalako. Aldunak eztabe errasoi bat ...tu erabaki au dala-ta. Erkalaren etsai dirala? Agertu biar da, benetako zi-...ak.

Españatarrai ardura andirik eztautsoe emongo erabaki onek. Euzkuai bai, ez ...likubak garalako soilik, orontzoko azkatasuna nai dogulao baizik. Erkalak ...tzako azkatasuna ekarrela, iñoen, baña guzurra dala ikusten dogu. Gaizkin guz-...k azke daukoe gura dabena egiteko, baña katolikubak eta lekaidiak ez ostera.

Arerijoak bakarrik lortu dauz erabaki orregaz erkalak, besterik ez. Lan ba-...k asko diran ezkero zer egiñik naiko emoten dabe. Sindikalistak eta komunis-... beste alde batetik. Orain katoliku gustijak barriz. Benetan katolikuba danak ezin ...o dagikelako Elexaren aurkako lagirik. Elexa eta Laterrija banadutiak eztautso ...i bildurrik sartzen, gauza ona baita ori. Baña ondo ulertu biar da zer esan gura ...en its orrek.

Munduko tribunal baten ezta jazoten emen jazo danik. Erru danari entzuten ... España'ko basatijen artian ezta barriz olakorik egin. Erkaidiak ixilik kan-...a joango dira, Jaungoikuak indarrik emoten dautsoelako ori egiteko. Baña ja-...go dabe gurasuak olakorik? Nora bialduko dabez umiak? Uzkurtza bako irakas-...a? Irakastola bakarrera?

Gurasuak txarto dagoz orain. Txarrena ostera ezkertarra orrein buru bakota-...n baita. Nai eta nai ez bialdubiar dira aurrak irakastola bakarrera. Eta Jaun-...ren bildurrean bere semiak azi gura dauzanak zer egingo? Lekaidikaitik baño ...e aurrakaitik ikera andijagua artze dogu. Españatarrak ardura barik dagoz, ...o benetako ziñismena daukogunak bildurrez.

Orain agertzen da zelako errasoya euki daben euzkotarrak, Lizarrako araudi-...ekatuten eben arazoatzaz. Doipuruakin eurek ulertu nai ebelako. Benetako ...tasuna balego orontzako, iñoz etzan jazoko olakorik.

Baña gaizkabide bat badauko guretzako. Lagi orrek eztagoz geuretzat egiñak, ...la'ko aldun-batzarrari agintaritzerik eztautzogulako onesten. Euzkotarrak eu-...agijak baño eztabez onesten.

Lagi oneik erail ebezan, baña eurak barriro argira agertu biar doguz. Orri egi-...n abertzaletasuna. Zelan bijotzeraño sartuten yakun aberri au, España'ko buru-...berrijak ikustean. Maitagarrijago biurtuten yaku. Eztago guretzako beste abe-...ri.

Ukurtza ei zan españatarrakin batuten gendubazana, baña gaur eztago olako-...ko baño be azkatasun andijagua daukogu geure geuriak ixateko. Eta katoli-...k diranak, beste biderik eztagijela itxadon euren aberrijarentzat. Abertzaletu ...ala. Txorakerijak dira beste asmuak. Ziñismenak aldezlari onena auxe daulako ...rregiak jausten dira, uzkurtza ondatuten dabe, baña aberrijaren sustrayak uz-...a defenditzeko aña indar badaukoe.

Bide bakarra borondate oneko gixonentzat. Ezkertarren eta eskumatarren arte-...kuntzak argi dagoz. Orain ezta dan tzan ibilteko orduba. Edo batera edo beste-...Euzkadi'n barrizeztago ezkumatarrik, euzko-abertzaliak kendu ezkero. Banaka ...k diran arren, orreik bakarrik eztabe ezer egingo. Gustijak batuta, baña ziñis-...eta aberrijan. Bijetan gura doguz. Batasunak egiteko onestu dagijela aberrija. ...ukurtzaren ganian jarri dogulako abertzaletasuna, onek aldeztuten dabelako on-...ukurtza baño. Bijak alkarrekin. Bidiak argi dagoz, Betor borondate onekua.

Ama Euzkadi

Geure aberri ama Euzkadi
...u deru iñun bardiñik,
...eure sendijan ezdago iñor
...ei an ez dakijanik;
...orixe gaitik euzkotar danok
...eu ain itun ikusirik,
...eurtuak gagoz zeu jaboteko
...aldu ez daizun bixirik.

Arerijuak ugari dozuz
...eure inguru danetan,
...eure bizitza amaitu nairik
...euren atzaparretan;
Ama Euzkadi ez ikaratu
...irautsut bene benetan,
...eure bizitza goitxuan dago
...au buruko besuetan.

Batzoki asko duaz edeiten
...aberzalien txokuak,
...ama Euzkadi zeu azkatzeko
...eurrijan egin dakuak;
...eurriz da indarrez aurrera beti
...ztro gaur da bijarkuak,
...gaitza zigur jaritxikogu
...gura badau Jaungoikuak.

Sinistie osuan eta apalik
...ya daijogun berari,
...ele buztarri otsagarri au
...aka dakijon amari;
...au entzun bere nai ez dabenak
...ksarik gabe esen,
Madrilgo batzar nausijan batu
...dirade ainbat azeri.

Usain txarreko pistija dogu
...aki edo ezerija,
...euren sabelak asetuteko
...gura leuke oillokija;
...iña Agirre eta lagunak
...anguturik guztija,
...ozo listuen guramen txarrei
...rten dautsie esija.

Gizon jakintsu Agirretarra
...ai dozu adin argije,
...erealaxe ezautzen dozu
...ori edo lukije;
...Euskuak berak autue zara
...ro gizon egokije,
...eure bitartez azkatuteko
...uskaldunen aberrije.

Lerru aundija dozu aurrian
...iñe ezartu bildurrik,
...erezko errazoia daukanak
...ade bat dauko bakarrik;
...erraitu beti zuzen aurrera
...artu iñoiz okerrik,
...ntela egin doguzan lanak
...ango dira alperrik.

Aitorren jatorizko guztijok
...adogu ama erruki,
...untijok menaz maite doguna
...eure amatxok badaki;
...eure bizitza zainduko dogu
...euren bildurrik ez euki,
...or beti goija neuko zaitugu
...eratuagaz Euzkadi.

GARATE'TAR J. M.

Aldizkingijak

...OIKO ZALE"

Billa-Bidea

...iñu ikasbidea.—Gama.
...ako loretxoak. (Olerkia).—Batiz
...ierra.
...iñu bearra.
...uak.—Atarra.
...ko gora-berak.
...talo.—Astitze.
...ri ta bestea.—G.
...zkia. (Olerkia). Astitxe.
...ko-ekintza.—M.'tar G.

Irudiak

...ed EUZKADI

Mikel Antón'en gauzak

Pagatzarte'ko Mikel Anton agure zintzoa, lengo asteko arratsalde baten iretai zorrotz bat eskuan ebala Iñungane mendira ira ebaiten juan zan. Kesmingo landia gora astiro samar joian, bijamonerako baso-biarrak zelan gertau ta abar, aldoztoten edo.

Onetan, Arridu'ko iturritxora eldu zan; eta bertako ur gozo-otza edanez, arri-mokil baten ganian atseden apur bat artzen jezarri zan. Atseden ostian barriro lengo bidian jarrai eban. Eskubaratx aldera eldu zanian, bide ertzeko zugatz-arte baten iru-lau "señorita" barriketa ugarijan iñarduela aurkitu zituban. Neskok, oraingo modako janski itxusijakaz, euren soñak erdi estalduta ebezala lotsagarriro egozan.

Mikel Anton, moda txar gustijen arerijo benetakua dan legez, neska areen lotsabakokerija ikustian asarre bizijan jarri zan. Eta berekautan asarre onan iñoan:

—¡Oneik pizti denganiñuok, bai iñun diran lekuetara eldu be! Euroen janzki inpernutarrok or beietan (urijetan eta ondartzaetan) erabilijaz bakarrik eztira naikotzen. Geure baserrijetako ekandu eder eta garbijak illundu ta loitu arteraño eztira geratuko, zirtzillok alakuok...!

Asarre be, asarre juan zan gure agure zintzua mendija gora; ta bidian joiala erabagi eban "señorita" areik zelan edo alan menditik uxatzia.

Juan zan inguruan aurkitzen ziran bei, beor eta enparau baso-aberiakana, ta batzen dautsoez ebezan mando-euli guztijak buruan eban txapel andira. Ta asko batu astian, neskak aurkitzen ziran landatxura jatsi zan. Eta areen ondotik igarokeran, txapeleko mando euli guztijak bestela-baitakuan sakabanatu zituban. Eta orduban... ¡an izan zan zaratie ta burrundadia...! ¡Ango negarra ta ango uluz! Atx-mendijak bera etorri balitzaz be, andijagorik ez. Laster juan ziran bai "señoritok" agertu ziran bidietatik eureen etxi etara; barriro beingoan ez etorteko asmuagaz.

Ganeko egunetan, Mikel Anton begikuak, auzuetako jentiari esaten eutsoen.

—Neska barrabasok, barriro beingoan etxatozak aurreratuko... Eurak uxatzeko ba, sekulako erremedijo santue asmau yuat eta. Nik lengoan egin nebana askok egingo baleukiek, laster litzakezak "señorita" guztijak ganoraz eta ondo jantzita agertu... Errazoe andija eban bai, Arridu'ko Timatiok esan ebanian, oraingo emakume askoren buruak eta letra bako libruria bardiñak dirala...

MAÑARIKO.

ETXE TA LURR SALDU-EROSTIA
Etxien-gain diru arrtu-emotia
INTXAURRAGA'tarr P.
Bilbao-Bailen, 3-2'g. 11.685 Urrutizk

Idazti Barriak

KARMEN'GO AMAREN ESKU-LIBURUA

Doroti abeak egiña dator. Idazki mamintsuba gogoko edertasuna maite dabenentzat. Goguak kima askotako oneraspenak ixaten dauz eta Karmen'go Amari dautsona, ezta txikijena.

Esku-liburubu gustijak bardin xamarrak dozuz, oraingo onek aldakuntza badauko. Karmen'go lorategijan ixan diran deunai oneraspenik daukotsenak, samurkiro erabilli daikee. Amayeran eleiz abestijak ikusi doguz. Izki-goxuak daukoez, ez euzkera mordollodunak. Bederatzi urrenak eta abarrek eder egiten dabe.

Euzkerari bagagoz barriz, atsegingarri. Gipuzkeraz daguan arren ulerterreza bizkaikoentzako be. Abak berak diñosku zegaitik gipuzkeraz idazti daben: Ala ere, gipuzkeraz beñepein, eztegu Karmen'go Amari otoitz egiteko liburu egokirik.

Aba agurgarri orrentzako ostera itzik labanena baxen ona ixango, liburu ori gustijak erostia. Zorijonik autsubena bedi idaztija euzkotarren eskubetan ikustia. Euzkerak eta goguak irepasiko dabe zeredo-zer. Eta eskarrik asko bialdu dauskuban igekijagaitik.

Idarreta (Amoroto).
Amoroto (Bizkaya).

"EUSKALERRIAREN ALDE"

"Los vascos en 1800. Tamborrada donostiarra", por Martín de Angiozar.

"Notas a la donación a Leire. Contribución al estudio de los orígenes de Donostia", por Ricardo de Izagirre.

"Secundino Esnaola", por Juan Gorostidi.

"Relación de hidalguías del Archivo Municipal de Azpeitia", por Modesto Madariaga.

"De todo el país. En memoria de Bolibar.—El bilingüismo escolar.—La mujer y el euskera.—Universidad Vasca.—El Estatuto vasco", por Bildari.

Euskal-Esnalea

"Elerti euskaldunaren zuzenbidea". Irigoyen'dar Txomin'ek idatzia.

"Izaki onak". Atutxa'tar Agustin Anaia'ren olerkia.

"Burruntziya". Toribio Altzaga'k idatzitako antzerki irritsua.

"De Euskal-Esnalea". Euskal-Esnalea Madrid'en.—Gure itzaldiak (Nuestras conferencias).—Nuestro repertorio teatral, por E. Esnalea.

"Jantzi-geikeria". Urkia'tar Fernando'k bildu ta asmatutako esakunak.

"En torno al idioma vasco. Lekaroz'ko euskal-jaia, por Anabi.

"Izkirimiriak", por Jajai.

Treinta y dos páginas encuadernables de la conferencia "Gastelu-mutillak", de Evaristo de Bustintza (Kirikiño).

ARETA ETA LLODIO artian etxia

Ftxoñak bixi-irateko salgai dagoz, ur, argi, ducha garage ta gusti, bitxabalertzian. Egin-barrija oraindik.
EUZKADI'n itaundu.

EMAKUMIAK ERRIKERAN (POLITICAN)

Orain Madrid'en eratzen ari diran laterkera berri ortan, emakumiari ere, gizonak dituzten eskubide guztiak ezagutu dizkate. Emakumiak aurrerantz autarkia dutelarik errikeran bitartetu biar dute. Ondo derizkiogu erabaki oneri, euzkotar gonaduna... Aberrirantz ondo begiratuko dutelako. Badakite berak gure naimen gustiak oinperatu nai dituztela. Ondo ikusten dute gure ontasun guztiak ez dirala guretzat bakarrik izaten, guri ondamena ekarri nairik dabiltzan arrotzentzat baizik.

Baña ez da naikoa oyek danak ezagutzea. Danak, beren al guztia jarri biar degu, geure geuriak diran, bai lege ta bai biozkada guziak zaitzeko.

Bada orrela, biar biarrekoa da euzko emakumea lozorro ortatik itzartia. Une garrantzitsuak dira orrela igige egoteko. Jagi emakumia, entzun Aberriyaren azkentzeko diadarra; entzun anai jeltzalien oyua, ta ¡entzun!... zure entzukiak argi eta gogua garroi dituzula, berak erakusten dizuten gaizkabidean jarri.

Badakizu Aberri gaizkabidea dala bide ori; zematzalle arrotz orregandik euzko gogapena askatu nai degu, eta ortarako ez du iñortxok ere gelditu biar; baizik zar ta gazte, andra ta gizon guztiak beren alegiñak eman biar dituzte egikizun au kementsua izan dedin, zergatik laguntza orri zabarkeriz lagatzen dionak Aberri kaltezko legauzpenik aundiena egiten du.

Badakizu emakumia or aruntzko oste zitalak, Erri onen aurrerapen eta onezkoak eziñ ikusirik, gure Aberri maite au birrindu nairik dabiltzala; gure Uzkurtz eta zinismen an oinperatu ta kendu nai digutela; zure odolen odola daramaten mutiko-neskato oyeri, zuk magalian zeuzkan bitartian erakutsitako Jaungoikoaren izen Donea eta Kistoren Uzkurtz, gure zinismena, gezurtaratu nai dizkiotela.

Jaungoiko gabeko ikastola oyetan nai dute zure umiak guztiz Altzuaren itzalpen gabe izatia. Ikastol oyetako ikasbideen bitartez, besterik ez dute nai sendi maitasuna zure umiari kenduaz, galbide zorian ludi zabalera bota baño, eta azkenik maitazunez eratutako euzko sendi zoriontsuak puskatu nai digutela. ¡O, anei maitasunez ainbeste opatutako gure sendiak! Utziko ote diogu, guk euzkotarrak, arrotz koldar oyeri, gure Abendaren biozkadarik zustraitsuenak oinperatzen?

Ez, ez digute kenduko, euzko emakumia, euzkotasuna bizi baita oraindik; baña kentzen badigute ere guk geyena nai eta itzalgarriena zaizkigun gauza oyek, ziur egon euzkotar danak ernai jaikiko dirala lege oien aurka.

Emakume Abertzale Batza aipatzen dizut zuretzat ere. Euzko emakumien erakunde ortan dezu zure gogaiki guztien alde egiteko era. Batasuna indarra izanik, erakunde kementsutatik dator garaipena.

Bada juan berialа zure izenakin eta jarri Aberri aldez lanian, beti oroituaz beste aberri batsuek ere beren lotun gogorrak birindu zituztela emakume erakunde indartsuari eskerrak.

Autarkiya zurekin dezu eta biarrekoa zaizu euzko arazoak zer diran ezagutzia zergatik zabarkeriz edo urgoitasunez lagatzen diyonak bere buruaren kaltezko errudun egipen bat egiten du ta.

Emakume Abertzale Batzarren erabakiak zuzen jarriak daude euzko goguarenalde; eta bere alderdikidien asmo eta zaletasuna nolakoak diran, ala izango dira bere aurrerapenak eta aurreratu nai duanak ernatasun aundia biar du.

Gure Abendaren zoriona lortzeko biderik zuzen eta bakarrena auxe da eta euzkotar guziak, gixon ta emakume danak beren adetik, Jaungoikoa eta Lege Zarrak ikurritzat daraman ikurriñ pian batzen geratian, orduan gure biotzak ama Euzkadi'ri ezkeñiaz ezango diogu. ¡Gure Aberri maite Euzkadi! ¡Emen zure seme guztiok zure garbitasuna gorde eta zor zaizun azkatasuna lortzeko poz-atsegiñez gure antziñako asabak lez oldartuko ditugula, ez aurretasun eta aokaldiak bakarrik, baita bizitza bera ere; zugatik jasan eta iltzia, zure aintzarako itzia da ta!

ELORDI

ERRIJETATIK

LEGAZPI

UARRA.—Ba-liteke noizipein eta geyagotan ere biarba izparren batzuk Legazpia'n gelditzea argitaldu bage.

Gu geu batez gaitu arritzen gauza orrek, eta geu bezelaxe beste batzuk ere elitzazke ikaratuko, jakingo ba-luteke jakin, idazkayokatik eztegula ogirik jaten.

—Egun batzuk gure artean eginda, bere errira juanda, Soraluze'ko Lakuesta'tar Koldobika mutil gaste-gastia. "Así es que" urrengorarte Koldobika.

Igaziko igandian bostekua estutu gendion Uzelai'tar Balendin aizkide begikuari. "De más"-ak esanda illunabarrean etz... tu zan. Agur.

—Igaziko astelen goizeko 10'etan Aranzatzu'ko basatxono polit-ederrean dagon Ama Neskutza irudiyaren aurrian ezkondu zan Aranburu'tar Jon Kepa, gaur emastu don emastegayakin. Izenik ez jakin ba, ta artezago ezin esan. Zorunak.

—Juan zan larunbatean apaldu zuten Beasain'go Urteaga jatetxian, Latsa'tar Julen aizkidiaren, lagun eta aizkidiak, bere ezkontzea dala-ta agur egitiarren.

Ederki apaldu omen zuten ¡ederki! Eta ezta Urteaga jatetxiari "recláme" egitiagatik, esana.

—Donostia'ko sendetxe baten aurkitzen diran zoriyoneko urrakuntza bat eginda, Alzelai'tar Timota, eta Aldasoro'tar Pantzeska oskiñaren emastia.

Bata lez bestiak ere ez omen dauka okerragorik-eta, laister eme nizango ditugu. Len-bait-len naitsu edo naibage bage, etorri.

—España aldetik eron daroz (eruan daruaz) egun batzuk Segura'tar Luken jaunak.

Datorren iganderako zerozer antolatzeko izan bear dute Gabiritarrak, "Aztiriak" etan egiteko, Legazpi'ko abertzaliak agunduta-edo.

—"El Día" Donostia'ko izparringiyak arpide bat zabaldu do, Madrid'ko "gobiernuak" ezarri dion estun edo "kate"-ak egiten ari zaizkon zauriyak "sendatzeko".

Aditu degunez bear aña txindi (diru) bilduko ezap-leu izparringiyoi gal-zoriyan legoke.

Uzkurtzale (católico) eta jeltzaliak ikusi bezate zer-egin bear duten orain, Biteri'tar Joseba'n bizartokiyan dagon arpideakin.

—Juan zan igande arratsaldian Gasparenea emakumez josita zegon. "Pepitan" errepesko-artzia zala jakin gendun gero.

ZAR-ZALE.

ISASONDO

EMAKUME ABERTZALE BATZA. Uri onetako emakumiak berotasun aundiz dabiltza Emakume Abertzale Batza jarritzeko, lore xorta bezelaxen talde polita bilduzen dirade, ta zerbait egingo duten itxaropen osua daukagu, nola ez bada? Emakumian biyotza maitatzeko egiña bada. maitasun ori nola ukatu, ixekaka eta ostikoka il nairik dabilkiten egunetan geren egiazko Ama Euzkadi'ri?

IKURRIN BERRIA. — Lenago aitatu detan emakume ore xorta orrek Euzko Gaztediari ikurrin berria saritu diyo. Guztiz poita-da ikurrin-ori, ta bera onestutzeko jai-aldi bereziak egiteko asmuak daude, bañan bitarte ezin ego Euzko Gaztedia'ren izenian esker ugariak Emakume Abertzaliori emangabe, aneika eskerrak bada, ta jarraitu azkatasun bidiari.

UDAL ERABAKIAK.—Beste askoren artian. asi beko enparantza-tik eta goiko enparantza-ra bi aldetatik tximist indarrezko argiak jarritzea ta "Euskaltzaleak" Bazkunari 25 laurlekok kematia erabaki dute.

GAIXORIK.—Gaitzaldi gogor batek oso menperatua dauka juan daneko aspaldi-onetan gure lagun maitia-dan Sarasola'tar Jon Martin, arri ola ospatsuetako nagusi zarra, baldin Jaunaren gogua ala bada sendatzia opa diyogu.

ERIOTZA.— Juandan astian bere bizitzako 76 urte zituanian, Eleizako ta Doi Batza-ren Onespenak artu ondoren Jaunaren besuetan asken arnasa emantzuan Jauregi'tar Mikelle atsekabia lagundutzen diyogu bere sendiari.

GUDARIAK.—Atsekabia-da Euskaldun batentzat gudari juatia, bañan atsekabe orren onduan poz bat badaukate uri oneta aurtengo gudari gaiak Afrikatik azke diradelako, gu-ere gudariak ez izan arren asko poztutzen gerade zozkera orretan zenbaki aundiak atera dituzutelako.

EUZKO IKASKUNTZA. — Goseteak ogia bezin bearrekua degu ikastoletan gaztieri Ikastaroa Abenda-Elez eragiñaztea. Txalogarriak dirade Euzko-Ikaskuntza-k ontarako egiten dituan alegiñan, baita-ere Euzko Irakasliak orandik denbora gutxi artu dituzten asmo ederrak ere. Bañan badira ordia oraindik Irakasliak Eukaldunak izan arren ori ontzat artutzen ez dutenak, gure uriko irakasleak-ere ezdu ondo artu, aaxen idatzi zuan "El Pueblo Vasco"-n bañan juandan astartian izparringi berean Tolosa'tar Iñaki Irakaslia ederki asko erartzun diyo Bilinguismo-n gañian. Jarraitu bide ortatik Tolosa Irakaslia.

MURUMENDI.

AZPEITI

TRAILLA'KO GORA-BERAK.—Juan dan illean ondoren ezartzen degun igikua edo mobimientoa nabaitu da: Jayotzak 15; Eriotza 16 ta ezkontzak bat.

LASTERKETA (APUSTUA). — Datorren igandean emengo zezen-enparantzan lasterketa apustu bat jokatuko dute Oyartzabal'tar Joseba Mirena "Oranda" gaitzizenez esagututako erritarrak ta Zumarraga'ko Madina'tar Domeka'k zezen-enparantzari 70 biraldi (113 neurkin edo metro biraldiko) nork lenago eman. 1.000 laurleko sakelera zeñek sartu jokatzen dute ta zaletasun aundia dago joku au ikusteko.

DEMA EDO PROBA APUSTUA.—Baita ere datorren igandean goizeko amaiketan ta arratsaldeko iru terdietan proba jokuak izango dira zezen-enparantzan sari abek banaturik: Lenbizikoai 250 laurleko; bigarrenai 175 irugarrenai 100, ta laugarrenai 50. Oraindaño izena eman dutenak oyetxek dira: Itziar'ko "Txarturi" Elgoibar'ko "Mutxillo" ta Getari'ko Zabala.

LABUR TA NASTUAN. — Jaunaren besoetan il da Arzuaga'tar Andresa txit esaguna zana. Aren sendiai laguntzen diogu atsekabe garratz orretan (G. B.).

Ostiralean egin ziran Txadon Nagusian Etxaniz'tar Imanol'en eriotz-urtemugako eleizkizunak notin asko bildurik. Berritzen diogu aren sendiai gure tamal agurra.

Emen izandu zan Bastarrika'tar Joseba donostiar gaztea.

ERRIKO ABERTZALEAI. — Badakizute donostiar abertzaleak nolako jayak antolatu nai dituzten ill onen 25 erako. Egun orretan betetzen dira 92 urte España lapur oyek gure lege zarrak ostu zizkigutela. Azpeitiar abertzale ta ez diranak egun orretan Donostiratu bear degu Erkal-Gobernuari gure asarrea erakustera ta adierazotzera ez degula lepotik zintzilika kate maltzurriko eraman nai, ta oyek nai ez orren gure agindari deun Mikel'ek egunen baten birrinduko-dituala estuntz oyek Goñi'tar Todosi'renak birrindu aituan bezelaxe.

Gertu ba azpeitiarrak ta erantzun donostiar abertzalean deiari.

EMAKUMIENTZAKO ITZALDIAK. Iragarri genduan bezela datorren igandean arratsaldeko eleizkizunen ondoren itzaldi aberkoyak izango dira "Euskaltzaleak" deritzayon biltokian. Sarrera gonadunentzako bakarrik izango da ta itzlariak Etxabe'tar Miren ta Barrena'tar Arantzazu zarauztar aberkide maiteak izango dira. Aste bitartean jarraiko degu berriak ematen.

ELGOIBAR'KO "GARBIÑE"-RI. — Irakurri nuen neri idatzi zidazun oarra ta ez estutu, pakian lagako diot "Urreko-zoroa"-ri ta. Beste gonadun oyek ori onetara ekartzen sayatuko naiz ta zuk ere jarrai aurrera zuzendari jaunak bota dizkizun oreak bota ezkero nai luke gagoz idaztia ta, ez astuzu nor zeran badakigula ta ikusiko degu nola betetzen dezun zure eginbearra. Agindu nai dezuna-tximist-gurdian esagutu zenduen idazle txiro oni.

KIROL.

ELGOIBAR

BERGARA'N.—Jun zan igandian, ainbat eta ain bat gizonezko eta Emakume Abertzale Batza giñan Bergara, bultzi berezi edo edo especiala eduki edo aterazan emendik, uriko eresbatza ere geurakin zan. Ikusi da benetan Elgoibarren abertzale asko arkitu dala bai emakume eta gizonezko tartian, beste batzuk berriz lotsaz daude gugana etorteko, baña ez bidurtu Elgoibar'ko abertzaliak beroak zabal zabalik artuko zaituzte anaiak zeratu ba eta erruai egon; Bergara'n izugarrizko jaia egin zan (ori egualdia oso txarra eguala) ¿zer izango otezan ona egin batigu? Bergara'n kabitu ez.

Laister Bergara'n bezela gure uriko Emakume Abertzale Batza jarrikoda, ete jai izergarria egiteko asmuetan dira, ikusi dute ba Bergara'ko arrebak zer ederki antolatu zituzten, ikasbide ederra artu dute, eta siñestuta nago Bergara'n izandu ziran abertzale gustiak eta geiago izango dirala gure errian.

Esker biotzekuak uri onetako eresbatzakueri abertzale anai arriberri, eta azkenez Bergara eta inguruko abertzalieri ain arrera ederra egin zigutelako, eta batez ere an igandu ziran emakume gizonezko izlarieri, euskeldunen biotzak besotu dituelako.

¡Gora Bergara'ko Emakume Abertzale Batza! ¡Gora Euzkadi!

Ainbat abertzale agurtan gendun egun erretan beren artian gure maixu dan Urkiaga'tarEstepan (Lauaxeta).

AIXERIXA.

✦ ✦ ✦

USOAK.—Uri onetako eiztarien artean poz aundia dago ba usoak asi dira pasatzen da batzuk batzuk asi dira iltzen. Eistarien artean ez da entzuten beste itzik baño gaur palau dira usoak alako lekutik, tiroa tiratu da uts eta olako izkeketa asko.

Obe izango litzake Batzokiko eiztari danak bildu, gero batzuk ill eta apari bat ein danon artean.

Ez alda ondo esana "Aixerixa" "Aberri", "Garbiñe" eta lagunak?

ERIOTZA. — Donostiko "San Antonio de Abad" senda etxean ilda Alberdi'tar Joseba Imanol.

Laguntzen diet atsegabean beran sendiari.

BEREBIL BATEK ZAPALDU.—Larunbatean arratzaldeko postetan "Artetxe" baserri ondoan gertatu zan ezbear bat.

Ordu aretan egin zuan zaparrada auindi bat, Galarraga'tar Angeles eta Agustin anai arrebak 14 eta 11 urtekoak zauden bidea egiten baratzera eztaizen joan eta bitartean berebil batek zapaldu zituan biyak miñ arturik.

Umeari lagundu bearrean iges egin zuan berebillak eta gero Deba'n geraturik mikeleteak.

NEKAZARIAK. — Nekazariak oso pozik daude baba eta arto asko dagolako, gazoak ere ebai dute geienak.

BERGARA'N.—Igandean uri onetatik bultzi bat bete beteta juan zan Bergara'ra ikurrin onespentza zalako.

Urdubi ta laenetan Euzko Batzokitxik urten zuten eres-batza lagun zuela ikurriñakin geltokira.

Ordubiterdietan urten zuan bultziak dana beteta. Iruzetan itzaldira juan ziran.

Seiretan geltokira eta uri onetara zazpiretan geldokitzen Batzokira eresbatzakin eta Batzoki aurrean eresbatza ja zuan Euzko Abendaren Ereserkija oso txalotua izanik. Azkenian danak pozik.

ERIOTZA.— Donostian gudari zegola illda Martinez'tar Endika.

Laguntzen diet atsegabean beran sendiari.

ATXOLIN.

AZKOITI

AGUR. — Eritxo onetan nabaitzen dan abertzaletasunakin ta bera EUZKADI maite onetan zerbait azaltzeagatik nakarki izparringi onetara

Asketsi ba irakurleak nere utsegitzak nere sakelean dauzkaten izparrak zabaltzeagatik idazten deteta, ni baño idazle trebeagorik ba dagolako errian.

ITZALDI ABERKOYAK.—Larunbatean illunabarrean Olinpia deritzaion antzeztokian itzaldi aberkoyak izan ziran Batzoki'ko Batzar-artezkariak antolatuta.

Itzlariak Artetxe'tar Iñaki zumarragatar sendagillea ta "Altzeta" izan ziran ta argi ta garbi adirazi zizkiguten abertzaletasunaren erakusgayak, astendurik orobat gure aurka egitea baño besterik egiten ez duten eskubitar alderdiak ta EUZKADI gure Aberriaren azkatasuna irixteko Euzko-Jeltzale Alderdia bezelakorik ez dutela arkituko euzkotarrak España'ren batasun zaliak besterik ez baidira beste oyek naiz beren ezpañetan "foruzaleak" dirala esaten erabilli ta oyen foruzaletasuna argi ikusi dala azkenengo auteskundietan Lizarra'ko Euzko Estatutea sortu zanetik guda gogorra egin ziolako "poca substancia" deitzen zakon osotar izparringiak.

Urrengo itzaldia ill onen 24'ean izango da itzlari bat beintzat Montzon'tar Telespor bergarar iztun jatorra izanik. Lerro onen bidez dei dagiot zarrentzale, ta osozale guziai urbildu ditezela egun orretan Montzon jaunari entzutera ziur bai nago zuen alderdiak zer diran agertuko ditualako ta ikusi dezazuten egiaren aldezlea nor dan.

ERIOTZA.—Ikurten deunagaz sendotuta Jaunaren besoetan il da Kerexeta'tar Karla Kristan ona (G. B.). Aren sendiari laguntzen diogu atsekabe garratz orretan ta irakurleai otoi dagiyela daskayotegu zanaren gogo-aldez.

EZKONTZA.—Arantzazu'ko Ama Nezkutsaren txadonan ezkonduko da astebitarte onetan emen ain ezaguna dan Alberdi'tar Mikel Azpeiti'ko Azillona sendiko andereño politagaz. Zorionak ta urte askota paketsuak igaro.

E. A. B.'REN IKURRIN ONESPENA. Azilla'ren 29'garrena Deun Ander aurreguna izendatu da Emakume Abertzale Batza'ren ikurriña onesteko edo bedeinkatzeko. Egun ori ospatu nairik jai ederrak antolatuko dituzte gure emakumeak ta euren berri sasoiz emango degu orrialde onetan.

EMAKUME ABERTZALEAI.—Larogeitik gora zerata E. A. B. zuen izenak emanda zaudotenek ta zuen artean ez al da sortuko Azkoiti'ko berriak bidaltzeko ainbateko idazle bat.

Ni gonaduna banitzake ziur egon Lauaxeta'n illoretxorta jasotzeagatik bakarrik asiko nitzake, pozik ta arpegi alayokin artzen bai ditu gure zuzendari jaunak. Ez ote da sortuko batzonbat zuen artean? Gure Aberriaren izkuntza goraltzea ez ote dan batzonbat etorrikor. Nik bayeta uste ta ikusiko dezute une gutxi barru udako idazle argia sortuko dan uritxo onetan.

IGANDIAN AZPEITI'RA.—Zaletasun aundia dago datorren igandean Azpeiti'ko Uri Euru batzarrak antolatuta Euskatzaleak'en biltokian emakumentzako emango diran itzaldietara juateko.

Gertu guziok Azpeiti'ra juateko entzun degunez biar aundia dago orko emakumea abertzaletasuna zer dan ta nola nabaitzen dan eraketeko ta gañera emen ondoren eratuko diranetako ainbat geyenak ekarri ditzagun.

IDAZLEAI. — Garai bateko "Keixeta" "Kuku-erri" "Izarraitzpe" ta abar nun zaudote batere idazteke. Ez aldakizute beñere baño laguntza geyago bear dutela bai abertzaletasunak nola euzkerak? Asi ba zuek ere Azkoiti'ko izparraz ondo ornituta azaleu dedin Euzkadi.

ABERTZALE BATZUEI. — Badakigu ta lotsagarria da ditertzea "La Voz de las Hurdes" irakurtzen duten abertzaleak ba daudela Azkoiti'n.

Baña ez aldakizute zuek zer kalte dagizkion izparringi orrek gure zinismena ta gure Aberri maicari? Ta ala ere izparringi nardagarri orrei gintzen diozute?

Utzi zayozute gaurtikan zuentzako ta euzkotar guziontzako EUZKADI bezelakorik ez dezutelako arkituko.

ORMAOLAMENDI.

El Concierto Económico
Por F. de Zabala
Segunda edición
De venta en la Administración de EUZKADI.

Ecos de Sociedad

VIAJES

Han regresado de Alsasua doña Jesusa Lumbreras de Lezea e hijos.

—De Sukarrieta, don José Duñabeitia.

—De Algorta, don José María Maura.

—De Arrankudiaga, la señorita Evarista Arozena.

—De Abadiano, don Enrique Gana.

—De Berlín, don Pablo Foeschler y don Herman Putz.

—De Barcelona, los señores Puig y Sureda.

—De Logroño, don Fermín Maguregi.

—De Valencia, don José Tejedo y familia.

—De Copenhague, don Axel Werner Petersen.

—De Barcelona, don Elías Moriz, don Joaquín Codorinu y don Fernando Mercé e hijo.

—De Méjico, doña Juana Eppen de Gutiérrez y su hija Ana María, de distinguida familia mejicana.

—De Santander, don José Varela, don José Anasagasti y don Adolfo Uribe.

—De Gasteiz, don Domingo Lizarra y sobrino.

—De Santurze, don Nicolás Angulo y señora.

Han marchado:

—A Donostia, don Pedro Caro y don Enrique Oaxoa.

—A Avilés, los señores de Zubía (don Francisco).

—Barresó de Ezkarai la señora viuda de Suárez.

OPERADOS

La señorita Marichu Garrastazu ha sido operada felizmente de apendicitis por el doctor Donostia.

—También ha sido operado con satisfactorio resultado don Ramón Zubieta.

EL "BALLET" DE MANU SOTA Y ARANBARRI

El maestro Jesús Aranbarri está dando los últimos toques al "ballet" de Manu Sota.

Su título es "Aiko-Maiko, la bella Pimpilimpausa y el bello Odoloste".

Es un cuento ingenioso, que tiene que alcanzar un éxito rotundo, dado el entusiasmo que tienen los futuros intérpretes.

Y con la ilusión de un viaje a la "Ville de la Lumiére", cosa factible, según tenemos entendido comenzarán en seguida los ensayos de la obra. Este es el deseo de autores e intérpretes.

NATALICIO

Ha dado a luz una preciosa niña doña Aurora de Lekue, esposa de nuestro querido amigo y compatriota don José de Zuazua.

A la recién nacida se le han impuesto los nombres euzkéricos de Miren Nekane Amaya.

Enhorabuena.